

Bero-beroan

Suhiltzaileentzat estilo liburua

SUHILTZAILEEN irratirako estilo fitxak du izena liburua eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz argitaratu da. Irrati bidezko ahozko komunikazioa euskaraz hobetzeko asmoz hainbat esamolde bildu dituzte liburuan, eta baita hiztegia ere, gaztelaniazko ordainekin. Esamolde eta hitz batzuk lehendik argitaratutakoak dira, baina beste hainbat suhiltzaileek beraiek egokitu eta asmatu dituzte eguneroko lanean erabili ahal izateko. Tresnei, ibilgailuei, azpiegiturari eta komunikazio beharrei begira aukeratu dituzte hitzok eta esamoldeok. Liburua bereziki suhiltzaileentzako bada ere, litekeena da beste lanbide batzuetarako balio izatea. Liburua sarean dago helbide honetan: www.gipuzkoaeuskara.net/jarduerak/suhiltzaile

Bartzelonako Euskal Etxearentzat ENE saria

EUSKARAREN eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik ENE saria eman dio Bartzelonako Euskal Etxea-

ri Eusko Ikaskuntzak. Euskal Etxea 1979an sortu zuten euskaldunen bilgune izateko eta Katalunian euskal kultura ezagutarazteko. Gaur egun 400 bazkide ditu.

11 milioi euro euskalduntzeko

EUSKO JAURLARITZAK 11 milioi euro bideratuko ditu 2008an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako administrazio publikoko 5.000 langile euskalduntzeko. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen eta HABEren arteko akordioa garatzea izango du xede diru-laguntza horrek. Orotara 100 administrazio publikotako funtzionarioek hartuko dute parte euskara ikastaroetan.



Gisa honetako pintadak egin dituzte Nafarroako Fontellas herrian dagoen Argia ikastolako hormetan. Falangek sinatu ditu pintadak eta ikur faxistak ageri dira.

Lehen aldiz umea euskaraz erregistratuta

ETXAHUN ITURRIOTZ aretxabaletarra (Gipuzkoa) da jaiotzako inskripzioa euskaraz duen lehenengo haur jaioberrria. Hainbat oztopo eta saiakeraren ostean, Aretxabaletako erregistro zibilean liburu berezia zabaltzea lortu dute gurasoek. Orain arte, Euskal Herriko erregistroetan haurren inskripzioa gaztelaniaz eta frantsesez baino ezin zitekeen egin. Etxahuni inskripzioa liburu ofizialean egin ez badiote ere, “balio eta erangikortasun bera” duela azaldu dute gurasoek. Behatokiak adierazi du hemendik aurrera, nahi dutenentzat, beharrezko tramiteak bideratuko dituela.



Dekretuz edo dekretazoa

Azken uneko aldaketarik ezean, Gipuzkoako Foru Aldundiko EAJK asko murriztutako sozietate eta enpresen zerga dekretatuko du inposaketaz, Lakuako Gobernuaren bedeinkapenarekin eta enpresaburuaren babesarekin eta laguntzarekin. Zerga %32,6tik %28ra jaitsiko da erabaki horri esker. Batzar Orokorretan %30era jaitea adostu zen, beraz, erabakia Gipuzkoako hiritarren gehiengoaren aurka hartutakoa da. EAJK eta Lakuako Gobernuak gehiengoaren defendatzaile direla diote, hiritarren erabakien defendatzaile. Bada oraingoan gehiengoak eta hiritarrak errespetatzeko modu lotsagarria erakusten ari dira. Horrela saiatu ziren garai batean Lemoizko zentral nuklearra ezartzen, lortu zuten Boroako zentral termikoa ipintzea eta egun AHT nahi dute. Orain Gipuzkoan, dekretuz ezarri nahi duten sozietateen zerga bezala. Horrela ulertzen al dute gehiengoekiko errespetua eta euskal hiritarren erabakia kontuan hartzea? Estatu Espainiarrak Konstituzioa bezalako erabakiak ezartzen dizkio Euskal Herriari; ez du euskal hiritarren nahia errespetatzen eta Ibarretxe Plana eta EAEko Parlamentua bartzertzen ditu. Egoera horien aurrean kexu dira EAJ eta Lakuako Gobernuak, baina zertaz kexatzen dira? Gipuzkoan sozietateen zerga ezarrita, lehenago Boroako zentral termikoarekin eta orain AHTrekin bezala, bi erakundeok Madrilrek bezala jokatu dute euskal hiritarrekin.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Xabier Silveirak *Garan* esanak: “Zer dela-eta da bekatua espainolez idaztea eta ez espainolentzat euskaraz lan egitea? Zer dela-eta da delitua espainolez hitz egitea esandakoa espainolez esan denaren aitzakian espainiarrekin bat egitea ez denean delitu?”.

Jabier Sainz Pezonagak *Deian* esanak: “Berez euskararen bataila ez da Erriberan jokatzen baina hala ere oso garrantzitsua da Erriberako jendearen jarrera Nafarroako hizkuntza-politika euskararen aurka ala alde bideratzeko. Erriberako jendea kontentzitu behar da Nafarroan aldaketa sakona gauzatu behar dela legegidiaren arloan, baina inork ez dezala pentsa legea aldatzea bakarrik soluziobidea izango denik”.

Kale itsuaren aurreko galderak

ZER PENTSATZEN ote dute herritarrek Euskal Herriko etxe ugarian bizi den sufrimenduz? Oso desberdin pentsatuko ote dute bloke espainiarzalekoek -PP eta PSOEkoek- eta bloke abertzalekoek gehi Ezker Batukoek? Edo akaso banaketa ez da hori eta ETaren biolentzia onartu eta onartzen ez dutenen artean dago lerroa? Edo banaketa Estatuaren biolentzia zikina -garbia ere ba ei du eta- onartu eta onartzen ez dutenen artekoa ote da? (Eta banaketa lerroaz ari naizela, beti ere herritar batek beste herritar batzuen sufrimendua ulertzeko ikuspegitik ari naiz). Edo akaso ez ote dago zatiketa lerro bakarrik eta aipatutako gizarte taldeetan banaketa lerro desberdinak daude kasuan kasuko gai eta egoeraren arabera? Edo une batetik aurrera sufrimendua ez ote da ikusi ere egiten? Eta besteen sufrimendua ikusten ez denean zertan bihurtzen da pertsona? Sufrimendu eragilearen konplizea? Munstroa? Harri koskorra? Edo, besterik gabe, arrazionaliza ote daiteke sufrimendua, ulertu, eta lotara lasai joan? Kale itsuko paretaren aurreko galderak dira.

URTE BUKAERAK gori utzi du gatazka giroa: 18/98 auziko espetxeratzek, Gorka Lupiañezen tortura salaketa, Natividad Junkoren heriotza, PSEko egoitzaren aurkako atentatua Balmasedan, kale erasoak... Aurreikusitako egoeraren kronika, oraingo soka-tira parametroetan biziki gaizto-tu daitekeena gainera. Balmasedakoa moduko atentatu baten ondorioak zeintzuk izango diren kalkulatzeko ezin da samurra izan, eta beraz, ez dago argi negoziatio saio berriaren bila ETA noraino iristeko prest dagoen.



Etixeraten prentsaurrekoa Natividad Junkoren heriotza medio.

PSOE ere erruz astintzeko prest dagoela erakusten ari da, berdin dio horretarako zuzenbide estatuaren estoldetara behin eta berriz jaitsi behar bada; sarri pentsatu izan da beherago ezin dela jaitsi eta urtez urte baietz, jaitsi daitekeela erakutsi dute Estatuaren zerbitzari ugariek. Etakide gehiago atxilotu ahal dute, pertsona gehiago torturatu, kontzientzia preso-en kopurua handitu, presoak gehiago estutu, ilegalizazioa astindu... askoz gehiago ahal da. Batez ere Espainiako elite eta herritarren gehiengoak onartzen badu, zeren onarpen maila bat barik ez litzateke posible soto ilunetara hainbestetan jaitea.

2008. URTEA bizi dator zentzu askotan. Ilegalizazio doinuak indartsu datoz eta ez dirudi ANV-EAEk edo legez kanpoko ezker abertzaleak Espainiako martxoko hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik izango duenik. Bestetik, herritar asko dago kontsultarena nola bukatuko den ikusteko irrikitan. Eusko Jaurlaritzaren ekimenak oso tarte gutxi du halako biolentzia giro batean. Magiarik ez da hemen eta, erabakimenaren ikuspegitik, galdeketaenak ez du zentzu handirik halako gaiez erabakitzeko gutxieneke bake eta askatasun giro-

rik ez dagoenean. Zapatero/Raxoi-Ibarretxe ekaineko akordiorik ezean, ez da samurra irudikatzea erabakitzeko bozketarik lehergailu, atxiloteta edota hildakoekin. Zerbait historikoa egiteko aukera du Ibarretxe lehendakariak, baina ez da erraza irudikatzea -Earen bultzada eta guztiz-EAJ erronka bide horretan noraino joateko prest dagoen. Zerbait historikoa edo beste bat gehiago.

MARTXOAREN 9KOA hauteskunde eguna izango da Euskal Herri osoan. Hegoaldean Espainiako Legebiltzarra hautatuko da eta Iparraldeak udalak eta Paueko Kontseilu Nagusiko zati bat. Madrilen, PPK edo PSOEk irabazi, biek agertu beharko dute Ibarretxeren galdeketaerik jarri argia. PPrena argi bide dago. Zapaterok errepikatuz gero, saio negoziatio berri baterako esperantza ez bide da guztiz itxita. Funtsean, erakutsi beharko du oraingo errepresioaren hautua PPri hauteskundeetan irabazteko estrategia zen edo politikak, aurreko legealdian saldu bezala, arazoak konpontzeko tresna gisa ere balio duen.

Nafarroan ere, PSOEk UPN gobernutik kanporatzeko esperantza zapuztu ondoren, herritarrek nola erantzuten duten ikustea interesgarria izango da, bereziki PSNko boto emailen jarrerari dagokionez. Foru hauteskundearen arrakastaren ondoren, NaBairen erronka ere ez da txantxetakoa.

Eta hauteskunde kontuak ez dira hor bukatzen, urriko galdeketa eta gero, Ibarretxe lehendakariaren ibilbide-orria betez gero bederen, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskunde berriak deituko lirateke.